


# ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko ekainak 12 · 1146. zenbakia

## PIRINIOETARA BEGIRA EGONGELATIK IRTEN GABE



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
**IGELTSERITZA**

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34  
F. Calbetón, 4 - 3. izpiak jorgevega.eibar@gmail.com





Elkarrizketak data hauetatik aurrera eskuragarri [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)

**15**  
maiatza

EBAR INGURUKO TXORRAK



ASIER SARIASUA  
Biologoa

**22**  
ekainak

ANIMALIEN EGOKITZAPENAK 600 MILKOI URTEZ



MIREN BEGO URRUTIA  
Biologian doktorea (E-4U)

**29**  
junio

GIPUZKOAKO IBI-BIDE HOMOLOGATUEN SAREA



URDIN ELORTZA  
Gipuzkoako Mendialdeko Federazioak

**6**  
uztaila

BASERRITARRAK GURE INGURUMENAREN ZAITZALE



AGURTZANE ETXANIZ  
Debatzen

**13**  
iraila

GEODIBERTSITATEA: NATURA NATURAREN ATZEAN



ASIER MILARIO  
Euskal Kontseko Geografoa

**20**  
iraila

KRISI SOZIOEKOLOGIKOAREN ISLAREN ALIRREAN



UNAI PASCUAL  
Berbataque

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

## Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Izen-ematea

Ekainaren 1etik 19ra

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[onarpena.lhm@mondragon.edu](mailto:onarpena.lhm@mondragon.edu)  
 664 298 704 · 664 298 683



## Koronabirusaren begiak

Badira hiru aste etxeko atea gurutzatu gabe. Kafesnea eskuan dudala ateari begira nago, erdi lo, egia esan gustura nago hemen barruan, ohitu naiz jada hemen egotera. Ni eta nire burua, nire burua eta ni. Jantzita dudana jertseak nire bikotearen usaia du, askotan erabili dut eta gaur arte konturatu ere ez naiz egin, inoiz ez naiz horretan fijatua, gaur ordea poztu egin nau usain horrek. Gosaltzen amaitu eta leihotik begira nago, ez dago inor kalean, pare bat polizia bakarrik eta ni eurei begira, hala ere, ez dut pasa den neguan sentitzen nuen bakardadea sentitzen.

Bat-batean Mari leihoratu da, nire etxe aurreko emakumea. Konfinamendua hasi zenetik egunero jardun gara ordu erdi batez hitz egiten. Orain dela hiru aste arte, agur bat besterik ez genion eskaintzen bata besteari; orain, aldiz, ez nioke uko egingo bere bizitzari buruzko liburu bat idazteari. Matrona izan zen 50 urtez eta, dirudienez, nire ama ekarri zuen mundura. Hainbeste gauza ezagutu ditut egun hauetan nire leihotik...

Hamaikak dira jada eta nire bikotea, Mikel, ohetik altxatu da, begiak erdi itxita musu bat eman dit eta lanean hasi da nire alboan. Itxialdia gertatu aurretik ez ginen gauera arte ikusten eta orain, aldiz, egun osoa elkarrekin pasatzen dugu. 7 urte daramatzagu batera eta joan den astean jakin nuen lehenengo aldiz zertaz zihoan bere lana zehatz-mehatz. Lotsa ematen dit 7 urte ondoren hori ez jakiteak, berari buruz dena nekiela uste bainuen, baina, egia esan, ez dut ezta nire burua ondo ezagutzen.

Dirudienez trebea naiz postreak egiten. Marrazketan ere ez naiz txarra, edo hori dio behintzat amamak bideodeietan. Ohitu egin naiz jada berarekin bideo bidez hitz egitera, baina, begirada atzera botatzen badut, oroitzen dudana bakarra "Kaixo" esateko bost minutuko mezuak dira eta orain, aldiz, hiru bideodei ditut egunero. Beldur naiz, ea bere Facebook-eko lagun petizioa noiz iritsiko!

Hau dena amaitu baino lehen idatzi hau egin nahi izan dut, egunen batean nire bilobei irakurri ahal izateko, aitona gudaiko istorioak kontatzen zizkidan moduan! Gainera, noizean behin, nik ere irakurriko dut eskutitz hau, horrela inoiz ez ahazteko munduko gauzarik garrantzitsuenak lau pareten barruan ditudala, nire alboan.

Ainhoa Larrauri Ostiategui

"Internet erabiltzeak hegazkinen joan-etorriak baino 1,5 aldiz gehiago kutsatzen du. Gutako bakoitzak bataz bestean lanerako 58 email jasotzen eta 33 bidaltzen ditu. Bi hartzailei 1 Mo pisuko 33 mezu bidaltzeak 180 kg CO2 isurpena ondorioztatzen du, esan nahi baitu autoz 1.000 kilometro egitearen berdina, Trantsizio Ekologikoaren Agentziaren arabera. Bidalitako 33 email horiek autoz Bilbo-Baiona zazpi aldiz egitearen neurri bereko kutsadura. Konparaketa gisa, sarean egindako bidalketa bakar batek kontsumo apaleko anpoila baten ordu bateko kontsumoaren berdina da. Internet herri bat balitz, energiaren kontsumoari begira jarriz, hirugarrena litzateke sailkapenean, Txina eta AEBak eta gero. Klik bakoitza garraiatzen dabilen auto baten parekoa da azkenean"

JENOFA BERHOKOIRIGOIN, kazetaria

"Foball epaileek orain arte moduan biziko dute errealitate berria, ez da hainbeste aldatuko. Partidu normal batean telebistan ikusiko denak du pisu gehien epaileen subkontzientean; eta horrek berdin jarraituko du izaten. Egia da ez dutela publikoaren presioa gainean izango, zelai batean zaleek epailea euren aurka arbitratzen diharduela uste dutenek sortutako burrunba hori. Baina hori ez da gogorrena epailearentzat; telebistaren presioa gogorragoa da, eta jokalaria inguratzen zaituztenean. Eta horrek berdin jarraituko du. Jendearen presioan baino arrisku gehiago ikusten dut nik jendearen faltak sortu dezakeen kontzentrazio faltan. Jendeak denbora guztian entxufatuta egotera behartzen zaitu; erlaxatzen bazara, orduan bai etorri daitekeela hankasartzea"

ARTURO DAUDEN IBAÑEZ, foball epaile-ohia

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MUSTURRA SARTU.**- Hautu guztietan sartu. Inoren arazoetan sartu. Gaztelerazko 'entrometse'. "Gauza guztietan musturra sartu biharreko gizona zan". "Batetik ez ba zan bestetik, musturra sartu gura eban."



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkarte  
**HELBIDEA**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285  
**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus  
**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkarte@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez  
**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria

**ARGAZKI ARLOA**  
Malen Jainaga eta  
Malen Illarramendi  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Juan Andres Argoitia eta  
Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia  
**TELEFONOA**  
943 20 67 76  
**AZALEKO ARGAZKIA**  
Ibai Lazkano  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado

**TIRADA**  
7.780 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



## Orain dela urtebete horrelakoak ginen

Unibertsitate Laboralaren 50 urteak jasotzen zituen liburua aurkeztu zuten ikastetxearekin lotutako 700 lagunren presentziarekin. Frankismoaren krimenen aurkako kereila kriminala aurkeztu zuten Eibarko epaitegian. Dantzari Egunean ikasturtean zehar ikasitako dantzen erakustaldia egin zuten Kezkako Dantza Taldekoek. Debabarreneko Orfeoia "Bubbles-Ponpak" izeneko kontzertua eskaini zuen Karmelitetan. Urtero San Juan jaien inguruan izaten den boxeo gauean berderatzi borroka izan ziren jokoan Astelenan. Mago de Oz eta Lord Witch taldeek eskaintako kontzertuak plaza eta inguru guztiak txiki laga zuten. 2019-2023 agintaldirako Udalbata berria eratu zuten, Miguel de los Toyos alkate izendatuz sozialisten botoekin. Asier Cuevasek Santander Hiria 50 kilometroko proba irabazi zuen hiru ordutan eta Mundialerako txartela eskuratu zuen. Bigarren urtez jarraian Nagusien Udalekuetarako toki guztiak bete ziren.

**Argazkiak:** 1- Mago de Oz taldearen kontzertua.

2- Frankismoaren krimenen aurkako kereila. 3- Dantzari Eguneko dantza saioa Untzagan. 4- Hauteskundeen osteko Udalbata berriaren eraketa. 5- Unibertsitate Laboralaren 50. urteurrenaren ospakizunak. 6- Asier Cuevas garaile Santanderreko 50 kilometroko proban.



1



2



3



4



5



6



## Udako plangintza Lehen Mailako eta Etengabeko Arreta Guneetarako

>>> ESI (Erakunde Sanitario Integratua) Debarreneko zuzendaritzak Udalari bidalitako komunikatu batean adierazten denez, udako plangintzari dagokionez (ekainetik abuztura bitartean), lehen mailako arretarako eta APE edo Etengabeko Arreta Guneetarako, orain arte bezala, telefono bidezko arretan ez da aldaketarik izango. Beraz, Eibarko Osasun Zentroko (Toribio Etxebarria) pazienteak 943032500 eta 943032501 zenbakietan artatuko dituzte, eta Torrekuako Osasun Zentroko pazienteek, berriz, 943032650 zenbakira deitu beharko dute. Batean zein bestean Lehen Mailako Arreta emango dute helduentzako eta haurrentzako. Paziante bakoitza dagokion osasun-zentroan artatuko da, izan ditzakeen sintomak albo batera lagata

Torrekuako Etengabeko Arreta Gunea udan zabalik egongo da, arnas sintomak (COVID-19arekin lotutakoak) nahiz arnas sintomarik ez dituzten pazienteei arreta emateko. Ordu-tegia, berriz, ohikoa izango da: 17:00etatik 08:00etara lanegunetan, eta 24 orduetan zapatu, domeka eta jaiegunetan.

### Koronabirus kasu berria

Hilabete oso bat kutsatutako gaixo barik igaro eta gero, eguaztenean berriz antzeman zuten koronabirus kasu bat Eibarren. Osasun Sailak argitaratzen duen eguazteneko txostenean 19 kasu berri zeuden jasota, horietatik 3 Gasteizen, 9 Bilbon, 3 Barakaldon eta bana Gueñesen eta Leioan. Horrela, azken asteetako joera apurru da eta EAEn nabarmen egin du gora kutsatu berrien kopuruak.



## Udaltzainek armak eraman behar dituztela dio Auzitegi Gorenak

>>> Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak bere unean onartutako sententziaren aurrean Eibarko Udalak aurkeztutako kasazio-errekurtsoa atzera bota eta hor adierazten zena betetzeko agindua eman du Auzitegi Gorenak. Berrespen hori dela eta, gure herriko udaltzainek pistola eraman beharko dute hemendik aurrera. Auzitegi Gorenak ez du motiborik ikusten

errekurtso horren aurrean bere iritzia emateko eta, horrela, aurreko erresoluzioa berrestea gain, epaitegietako bidea ixten du, lau urte iraun duen auziari amaiera emanez. Beste udal asko zeuden sententzia horren zain, jurisprudentzia ezarri dezakeelako. Euskadin armarik pistola eraman behar ez dituzten 43 udaltzain plantilla daude, gehienak Gipuzkoan.

## Eguaztenetako azoka Txaltxa Zelaira bueltan

>>> Eguaztenean ipini zuten berriz ere merkadilloa Txaltxa Zelaian. Aurrerantzean eguazteno zabalduko dute, ohiko ordutegian, eta 16 postu jarriko dira, "segurtasun tartea eta higieena eta osasuna babesteko neurriak errespetatuz". Herri-tarrei ere bi metroko distantzia zaintzeko eskatu nahi diete.



LENTZERIA  
**Ditare**  
KORTSETERIA  
BAINUJANTZIAK  
Gzon eta emakumeendako barruko erropa, pijamak, batak...  
BEREZITASUNA: talla handiak  
Urkizu, 7 943-127321



## 700.000 euro autonomo eta enpresa txikiei laguntzeko

>>> Eibarko Udalak 700.000 euroko zuzeneko laguntza lerroa bideratuko du merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreetan lan egiten duten autonomoentzat eta enpresa txiki eta ertainentzat, COVID-19ak eragindako kalteak konpentsatzeko. Alarma-egoerarengatik negozioa itxi behar izan dutenek edo fakturazioan %50 baino gehiagoko murrizpena izan dutenek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, eta Udalaren webguneko 'Bekak, dirulaguntzak eta laguntzak' atalean egin dezakete eskaera, gaurtik hasi eta ekainaren 30era arte.

Zuzeneko laguntzaren kopuruak hauexek dira: 900 euro itxi behar izan duten enpresa txiki eta ertainentzat eta autonomoentzat, eta 450 euro jarduera zabalik izan baina fakturazioaren % 50etik gorako diru-galerak izan dituztenentzat (merkatu plaza barne).

## Eibar estatuko 23. postuan dago biztanleko errenta kopuruaren araberrako sailkapenean

>>> 20.000 biztanletik gora dituzten estatuko herri eta hirien artean, Eibar aurrenekoen artean kokatzen da, 23. postuan hain zuzen: urteroko batzbesteko errenta 15.213 eurokoa da biztanleko gure herrian. Sailkapen horretan Madrilgo Pozuelo de Alarcon da liderra (25.903 euro biztanleko), Getxo (20.147), Madrilgo Boadilla del Monte (20.103) eta Bartzelonako Sant Cugat del Valles-en (19.591) aurretik. Donostia (17.187 euro) hamaikagarren postuan dago, Arrasate 19.ean (15.683), Zarautz 21.ean (15.306) eta Du-

rango 22.ean (15.487). Zerrenda horretan, Eibarren atzetik daude Bilbo 24.ean (15.137), Leioa 26.ean (15.005), Galdakao 27.ean (14.954), Gasteiz 32.ean (14.367), Hernani 47.ean (13.485), Portugalete 48.ean (13.480) eta Barañain 49.ean (13.402). Biztanleko errenta kopuru txikiak Almeriako Nijar (6.755 euro), Sevillako Los Palacios eta Villafranca (7.027) eta Almeriako Vicar herriek (7.051) dituzte. Gaur egun 20.000 biztanletik gorako 413 hiri eta herri daude estatuan eta datuak 2017an hasi ziren zenbatzen.

## Erreferendumaren aldeko aldarriak eta talde argazkia

>>> Euskal Herriko beste herri askotan bezala, Eibarren ere asko izan ziren domekan Untzagara joan eta euren aldarriak bertan idatzita laga nahi izan zuten herritarrak. Horretarako deia Hamaika Gara erreferendumaren aldeko mugimenduak egin zuen. Gure Esku herri mugimenduaren eta alor anitzeta-

ko eragileen arteko elkarlana eta sarea ditu oinarri dinamikak. Etorkizun politikoa erreferendum bidez erabaki ahal izateko, hainbat eragilek sindura bilketa bat abiatu zuten martxoaren 11n, Hamaika Gara izenpean, baina COVID-19aren pandemiaren eraginez udazkenera arte atzeratu dute.



## Iaz baino gehiago birziklatu dugu Debabarrenean

>>> Azken datuen arabera, Debabarreneko herritarrek gehiago birziklatu dute 2020ko apirilean 2019arekin alderatuta. Iosu Arraiz Mankomunitateako presidentek adierazi duenez, "gaikako bilketaren tasa %56 jarraitzen du izaten, eta datu positibo hori nagusiki herritarrek konfinamenduan euren etxebizitzetan hondakinak banatzen jarraitu dutelako da."

Kaleko edukiontzietan bildutako bio-hondakinen kopurua 2019ko apirilean 345 tonakoa izatetik 2020ko apirilean 394 tonakoa izatera igaro da. Igoera horrek bildutako hondakin organikoak %14a igo direla esan nahi du. Aldiz, errefusa (birziklatzen ez dena) 2019ko apirilean 1.118 tona izatetik 2020ko apirilean 1.058 tona izatera igaro da, hau da, % 5,37ean jaitsi da. Azpimarratu behar da tona organiko bakoitzeko Debabarrena mankomunitateak 136 euro ordaintzen dituela, eta errefusa tona bakoitzeko 181 euro. Ondorioz, gehiago birziklatzen bada, Debabarrenek gutxiago ordainduko dio eskualde gisa Hondakinen Partzuergoari, eta horrek eskaintzen duen zerbitzua hobetzen gehiago inbertitu ahal izatea ekarriko luke.

Arraizek azpimarratu duenez, "gure eskualdeko herritarrek birziklatzearekin duten konpromisoa eskertu nahi dugu".



## Biodibertsitateari buruzko sei elkarrizketa online

>>> Aurreko barixakuan Ingurumenaren Mundu Eguna zela eta, horren aitzakiarekin aurkeztu zuen Udalak biodibertsitateari buruzko informazioa zabaltzeko abiatu duen sentsibilizazio-kanpaina. Jon Iraola Ingurumen saileko zinegotziaren berbetan, “kanpaina Ingurumenaren Mundu Egunaren harira diseinatu da. Horretarako, atala sortu da Udalaren webgunean eta, ekainean eta uztailean, ingurumenari buruzko ikus-entzunezko material ugari argitaratuko da bertan”. Asmo horrekin Lorea Arakistain kazetariak elkarrizketak egingo dizkie sei adituri, biodibertsitateari lotutako atal ezberdinak landuz. Elkarrizketa horiek bideoan grabatu eta Udalaren webgunean ikusgai ipintzen joango dira, nahi duenak ikus ditzan. Horrekin batera, Udalaren Instagram kontuaren bitartez, naturarekin lotutako bideo laburrak zabalduko dituzte.

Kanpainaren harira egingo dituzten elkarrizketak Udalaren webguneko “Ingurumen Jardunaldiak” izeneko atalean ipiniko dituzte ikusgai. Lehen elkarrizketaren bideoa astelehenean, ekainaren 15ean,

argitaratuko da: Biologian lizentziatua eta Zoologian espezializatua den Asier Sarasua eibartarrari euskeraz egindako elkarrizketan, Eibarren eta Arrate inguruan aurki daitezkeen txorien eta hegaztien gainean arituko dira berbetan.

Hurrengo elkarrizketa ekainaren 22an igoko dute internetera: Miren Begoña Urrutia, Biologian doktorea eta UPV-EHUko irakasleak animalien egokitzapenari buruz egingo du berba. Hori ere euskeraz izango da. Hirugarren elkarrizketan Gipuzkoako ibilbide homologatuen sareari buruz arituko da Urdin Elortza, Gipuzkoako Mendizale Federazioko Ingurumen eta mendi-ibilaldietako teknikaria. Hau ere euskeraz izango da eta ekainaren 29tik aurrera egongo da ikusteko moduan. Uztailearen 6an Agurtzane Etxaniz Debemeneko gerenteak biodibertsitatearen, paisaiaren eta landa-inguruen zaintzan baserriarrek duten garrantziaz egingo du berba (euskeraz).

Uztailearen 13an Asier Hilarrio, Euskal Herriko Unibertsitateko Geologian doktore eta Euskal Kostaldearen Unescoko Geoparkeko zuzendari zienti-

fikoari egindako elkarrizketa argitaratuko da. Eta seigarren elkarrizketa uztailearen 20tik aurrera egongo da eskuragarri: “Ante el reflejo de la crisis socioeconómica” izenburuari jarraituko dio Unai Pascualek (Ikerbasque, BC3 Basque Centre for Climate Change-Klima Aldaketa Ikergai erakunde eta Unibertsitateko ikertzaile elkartua). Azken bi elkarrizketak gazteleraz izango dira

### Elkarrizketa dinamikoak

Lorea Arakistain kazetariak egingo ditu elkarrizketa guztiak, publiko orokorrari zuzenduta eta “formatu dinamiko eta atseginen”. Azaldutakoaren arabera, “bideo bakoitzaren atalean, lotura bat erantsiko da, gaiari buruzko informazio eta datu gehiago jakin nahi duenak horretarako aukera izan dezan”.

Aipatutako elkarrizketa horiez gain, Udalaren Instagram kontuan, uztailearen 30era arte astero 30 segundo inguruko bideoak zabaltzen joango dira: “Zortzi bideo izango dira, herriarrei Eibar inguruan aurki daitezkeen bioadierazleei buruzko informazioa modu labur eta argian emateko. Bioadierazle bat naturaren elementu bat da (begetala, onddoa edo animalia), gure ingurunean ingurumen-kalitatea neurtzeko bidea eskaintzen diguna”.


## AUTUAN

### DAITEKE ENPLEGURAKO ZERBITZU BULEGOA

Daiteke enplegurako orientazio zerbitzua aurrez aurre ematen hasi dira, baina bakarrik aurretik hitzordua eskatzen dutenak hartuko dituzte. Debegesan (Azitaingo industrialdea, 3 bis) dagoen bulegoan, lan bila ari direnentzat edo lana aldatu nahi dutenei aholkularitza ematen dute eta, hitzordua eskatzeko, 943 82 01 80 edo 688 823 782 telefonoetara deitu edo WhatsAppa bidali behar da. Besteak beste, kurrikuluma osatzen, lan-elkarrizketak prestatzen, lan eskaintzetan izena emateko edo LinkedIneko profilak sortzeko laguntza eskaintzen dute. Horrez gain, kurrikulumak inprimatzeko ordenagailuak erabiltzeko aukera dago.

### 4x4 KARABANA SAHARARA

Uda honetan Saharako umeak ezin izango direnez etorri, ‘Oporrak bakean’ egitasmoak Tindufeko haurrei behar-beharrezko produktuz (tartean, sendagaiak) betetako 28 kiloko maletak eramateko karabana antolatu du eta horiek eramateko garraioa (kamioiak, autobusak, autoak, furgonetak...) behar dituzte. Proiektuaren inguruan informazio gehiago behar izanez gero, 635 28 59 82 (Jone) telefonora deitu edo idazkaritza\_sahara\_euskadi@gmail.com helbidera idatzi daiteke.





## Mobilizazio jendetsuak egin ziren Zaldibarko luizitik lau hilabetera

Zapatuan bete ziren lau hilabete Verter Recycling 2002 SM enpresaren Zaldibarko zabortegia amildu zenetik eta bertan, hondakinen azpian, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileak desagertu zirenetik. Hori gogoratzeko eta gertatutako hondamendiarengatik erantzukizunak eskatzeko, zapatu arratsaldean manifestazioa egin zen Eibarren, Zaldibar Argitu plataformak deituta. Uneoro segurtasun neurriak beteta, ehundaka lagun elkartu ziren, oraindik desagertuta dauden Joaquin eta Alberto gogoan. Eibarren ez ezik, Zaldibarren, Elgetan, Zallan, Ermuan eta Markinan ere egin ziren mobilizazioak, *Langileak, osasuna, erantzukizunak* goiburuari jarraituz.

Biharamonean Vocento taldeko egunkariak argitaratu zuten informazioaren arabera, Ertzaintzak kriminalitate zantzuak ikusten ditu zabortegiaren kudeaketan, eta hala jaso dute epai-tegian aurkeztutako txostenean. Ikerketa horren arabera, pertsonen osasuna "arrisku larrian" jarri zen eta "mota guztietako hondakinak" jasotzen zituzten.







**Birjiñape Berria** TABERNA JATETXEA

hanburgesak -- bokatak  
ospakizun bereziak

eguneko menua      karta berria

Toribio Etxebarria, 16 - 943 82 13 41

**centro médico eibar**

URKIZU PASEALEKUA, 13  
Orbeako dorreak / 1. solairua  
☎ 943 12 02 00 – 943 12 02 04

- Análisi Klinikoak
- Barne Medikuntza
- Dermatologia
- Dietetika / Nutrizioa
- Erizaintza
- Familia medikua
- Fisioterapia
- Foto-depilazio Unitatea
- Kardiologia
- Kirurgia
- Kirurgia (aurpegi-masaila)
- Kirurgia baskularra
- Koloproktologia
- Neurofisiologia
- Ortodontzia
- Otorrinolaringologia
- Psikologia
- Radiologia
- Traumatologia
- Urologia

# zarelakopara

<<< ...eta kitto! Euskara Elkartea >>>

## “Urte osoko jarduna kolokan dago orain, baina denon artean aurrera egitea lortu dezakegula sinestuta gaude”

Sarritan, zerbait edo norbait galdu arte ez gara konturatzen zenbat maite edo behar genuen, ezta? Pentsatzen jardunez gero, apur bat tristea ere bada hutsunea eta gabezia sumatu behar izatea galdu dugun hura baloratzen hasteko. Egoera honetan ere gauza bera gertatu zaigu; bat-batean dena aldrebestu zaigunera arte, eta askatasuna, hurbiltasuna, musuak, besarkadak eta gertutasuna ukatu digutenera arte ez dugu gure lehengo bizimodua balioan jarri. Baina horiek guztiak ere itzuliko dira, eta bagabiltza pixkanaka aurrerapausoak ematen.

**U**kaezina da egoerak gu denongan eragina izan duela. Maila pertsonalean tristura, urduritasuna, egonezina, antsietatea, beldurra, malkoak... denetik eragin digu, baina, era berean, airera botatako musuekin, ikonoekin, hitzekin... gure barruko hori adierazten asmatu dugu. Inoiz baino indar handiagoa hartu dute gure berbek, gure sentipenak azaleratu eta esplizitatu behar izan ditugu.

Baina hitzek ez dute zentzurik beste batek entzuten edo irakurtzen ez baditu eta, are gutxiago, beste horren erantzuna, iritzia, gertutasuna, ulermena... bueltan jasotzen ez baditugu.

Azken batean, bata bestean beharra izan dugu inoiz baino gehiago, eta zerbait ulertu eta ikasi badugu izan da komunikazioa, elkartasuna, motibazioa, talde-lana eta ilusioari eusteko taldea behar dugula.

**...eta kitto! Euskara Elkartea ere horrelakoa da, ZU eta ZU moduko askok osatzen dugu GU. Zu gure oinarri-iparra ZARELAKO gara gu ausartak, gurekin elkarlanean aritzen ZARELAKO gara eraginkorrek, parte-hartzailea ZARELAKO gara herritarrek, ekintzailea ZARELAKO gara berritzaileak, baina bereziki gure babesari ZARELAKO gara gu elkartea.**

**"Bazkide eta herritarren babesari esker jarraitzen dute bizirik gure proiektuek"**

Egoera honetan inoiz baino gehiago behar dugu elkarrekin jardutea, urteetako ibilbidea izan duten proiektuek eta ematen ditugun zerbitzuek etena izan ez dezaten, eta Eibar euskaldunagoa, irekiagoa, solidarioagoa, parte-hartzaileagoa eta, azken finean, hobea izan dadin.

Urte osoko jarduna kolokan dago orain, baina denon artean aurrera egitea lortu dezakegula sinestuta gaude, zure bazkidetzak izugarriko eragina duelako. Berbetan mintzapraktika-egitasmoak, bertso-taldeak, ...eta kitto! astekariak, Txikitto! umeen hilabetekariak, Euskararen



Transmisioari buruzko mintegiak, Euskeraz Primeran! ekimenak... zure babesari esker diraute bizirik.

Aurten, sekula ez bezala behar dute egitasmo horiek guztiek zure babesa, ekonomikoki inoiz baino ahulago daudelako, eta hizkuntza gutxitu batez eta prekarizatutako

alor batez (euskalgintza) ari garenean etenaldiak heriotza ekar dezakeelako.

Zure bazkidetza arnasbidea da Elkartearentzat, gure jarduna aurrera eramaten laguntzen digulako, baina, batez ere, Elkartearen egitasmoei hain garrantzitsua deritzogun babes soziala ematen dielako. ■

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	Bonetako kostua
Umeek (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuak	15 €	4,5 €	11,5 €
Langileak	45 €	13,5 €	31,5 €
Beste ekarpen batzuk	150 €	45 €	115 €

\*URTEKO kopuruak dira

## zueiesker...

**Berbetan mintzapraktikako egitasmoa** da zure bazkidetzak ematen digun sostenguaren adibideetako bat.

2002. urtean ekin zion bere ibilbideari egitasmoak. Euskera ikasten ziharduten askok eskoletatik kanpo euskera norekin praktikatu ez zutela-eta, mintzapraktika-taldeak antolatuzko bideari heldu zion ...eta kitto! Euskara Elkarteak, gabezia hura sentitzen zutenei euren premia asetzeko xedez.

Hasierako bidea ez zuen erraza izan, Elkarteak proiektuan itsu-itsuan sinetsi arren, erakundeen babesa ez baitzen berehala iritsi. Urte batzuk pasa behar izan ziren Eibarko Udalaren babes eta laguntza hura ailegatu arte. Zailtasunak zailtasun, proiektuarekin aurrera egiteko ...eta kitto!-k zuen gogoia eta bazkideen aldetik jasotako babesa indartsuak ziren, eta horri esker ekin zion elkarteak Berbetan egitasmoari.

Xume hasi zen, dozena bat lagunekin, baina pixkanaka-pixkanaka berbalagunen familia handituz eta sendotuz joan da, gaur egungo ehundaka berbalagunetara iritsi arte. Gerora etorri zen udaletik laguntza, eta eskertu dugu, jakina, hori ere ezinbestekoa baitugu proiektuak aurrera ateratzeko. Baina, egoerarik zailenetan ere, herritarren eta, batez ere, bazkideen aldetik jaso izan dugun babesa da azpimarratu nahi duguna, horri esker jarraitzen baitute bizirik gure proiektuek, tartean Berbetan.



Programa bera ere handituz joan da, eta euskera praktikatze baliabide eta tresna gehiago eskaini ditzake gaur egun ...etakitto!-k. Horrela jaio ziren, adibidez, egitasmoaren aldaerak: Gurasoak Berbetan, Dendariak eta Ostalariak Berbetan eta Euskeraz Primeran! kanpaina. Norbere egoera eta premietara egokitutako mintzapraktika-jarduerak, alegia. Eta denborak eta esperientziak hasieran elkarteak zuen ustea berretsi dute gainera, hau da, euskera praktikatzeko taldeak oso tresna eraginkorrak direla euskeraren erabileran eragiteko. ■



Jai-giroa ez da faltako berbalagunen azken ekitaldietan.

# Berbalagunen ikasturte-amaierako ekitaldiak martxan!

Ekainaren 17an ikasturte amaierako afari-merienda egingo dute Berbetan programako partaideek. Eta hurrengo egunean Gurasoak Berbetan egitasmokoak elkartuko dira. Sorpresak ez dira faltako. Hori bai, segurtasun-neurriak beteko dira uneoro.

**E**kainean gauza askori esaten diegu agur: eskolako ikasturteari, eskolaz kanpoko jardueri, aisialdiko ekimenei... ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu eta dinamizatzen dituen berbalaguntaldeek ere ekainean amaitu ohi dute beren jarduna, eta, aurtengoa ez ohiko ikasturtea izan den arren, jai-giroan esango diote agur.

Berbetan programako partaideek datorren eguaztenean izango dute hitzordua, ekainaren 17an. Arratsaldeko 18:00etan elkartuko dira ... eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan, hori bai, segurtasun-neurri guztiak zainduta. Sasoi honetan egin ohi dute ikasturte amaierako afari-merienda; mokadutxoan, aspaldian

ikusitako berbalagunak agurtu eta ikasturteak eman duena komentatzen dute. Azken hilabeteetan, talde batzuk behintzat, online elkartzen ari dira, aurrez aurre ezin zuten-eta; beste batzuk, gauzak euren onera etorri arte itxaron dute, eta joan den astean berbalagun batzuk pozarren elkartu ziren berriz ere aurrez aurre kafetxo eta solasaldi goxobaten aurrean. Eguenean izango dute zer kontatu.

**"Aurtengoa ez ohikoa izan bada ere, jai giroan esango diote agur berbalagunek aurtengo ikasturteari"**

Gurasoak Berbetan egitasmoak, berriz, egunean, ekainak 18an, agurtuko du ikasturtea. Guraso berbalagunei eta haien familiei eskaintza handia egin die konfinamenduan ...eta kitto! Euskara Elkarteak: sukaldaritza, magia, aitzitxamamei maitasun-mezuak, eskulanak..., eta, horien guztien artean bat nabarmendu bada, Bingoa izan da, dudarik gabe. Ume zein helduek gogotsu jardun dute astean behin antolatu diren bingo-

saioetan. Egueneko ekitaldian, elkarrekin hartuko dute merienda eta, tripa bete eta gero, bingoko sariak banatuko dira sorpresaz beteriko sari-banaketan. Ez da inor esku hutsik itzuliko etxera.

Datorren ikasturteari begira, koronabirusa iritsi aurreko egoera berean hasi nahiko lukete antolatzailuek: "Guk egitaraua prest dugu, irailetik hasita datorren urteko ekainera artekoa. Behin iraileko aurkezpenak egin eta gero, urritik aurrera lehengora bueltatzea nahiko genuke, hau da, berbalagunak aurrez aurre elkartzea mintzapraktika egiteko, guraso berbalagunentzat eta haien familientzat ohiko ekimenak antolatzea... Espero dugu horrela izatea". ■



## Zaporeak-en kanpainari agurra

Martxoaren hasieran aurkeztu zuten hainbat sukaldariren ekimenez, eta Zaporeak taldeko boluntarioen eta beste hainbaten laguntzarekin, Greziako Lesbosen errefuxiatuta daudenenei laguntzeko kanpaina. Iazkoaren bidetik, Ermuan arroza eta Eibarren dilista pardinak biltzea zen asmoa, baina horretan hasi orduko, COVID-19aren pandemia hedatzen hasi eta, aurreikusita zituzten jarduera guztiak bertan behera laga behar izan zituzten. Aste honetan ekin diote berriz ere janaria biltzeari eta bihar emango dute amaitutzat kanpaina, Untzagan egingo den ekitaldiarekin.

**B**esteak beste Jesus Gonzalez, Maite Gorrotxategi eta Mireia Alonso sukaldariak arduratu dira kanpainaren antolaketaarekin eta, oztopoak oztopo, hasitakoa amaitu beharra zegoela erabaki zuten aurreko astean eta atzera ere ipini dute martxan arroz eta dilista bilketa. Aste osoan aritu dira errefuxiatuentzat janaria batzean bi herrietan eta bihar kanpaina amaitzeko ekitaldia egingo dute Untzagan, eguerdiko 12:00etatik 15:00etara.

Mireia Alonso eibartarrak lentejak prestatuko ditu, "barazki, kurkuma, curry eta Alkorta emandako bakailaoarekin". Eta Jesus Gonzalezek, berriz, paella egingo du, "Lumagorrik emandako Eusko Label oilaskoarekin, 100 bat errazio". Prestatutako janaria etxean jan ahal izateko tupperrak salduko dituzte, 5 eurotan. Sukaldariak azaldu dutenez, "errazio osoak saldu beharrean, errazio erdiak prestatuko ditugu, horrela tupperrak

per batean gauza biak eraman eta biak probatu ahal izateko. Bestalde, janaria eramateko prestatuko diren tupperrak, Zaporeak Greziara lehenengoz joan zenean, hango errefuxiatuei ematen zizkietenak bezalakoak izango dira". Janaria prestatzeko, probintzia osotik etorriko diren sukaldari askoren laguntza izango dute.

### Ekitaldian uneoro zaindu eta bermatuko da segurtasuna

Arduradunek azaldu dutenez, biharko ekitaldian uneoro zainduko dira osasuna babesteko eta segurtasuna bermatzeko bete beharreko baldintza guztiak: Untzaga plaza osoa hesis inguratuta egongo da, sarrera bakarra zabalduko dute, Calbeton kalearen aldetik, eta irteera ere bakarra izango da, Isasi kaleruntz. Bestalde, aldi berean ez da 25 lagun baino gehiago egongo plaza barruan, "eta ez da pintxo-poterik egingo ezta edaririk salduko. Hartu

### 5 eurotan salduko dituzte tupperrak eta barruan dilistak eta paella, erdia eta erdia ipiniko dute, biak jateko



eta eramateko janaria baino ez da egongo".

Tupperren salmentari esker biltzen den dirua Zaporeak elkartekoek Grezian martxan duten proiektura bideratuko dute eta gauza bera egingo da rifen salmentako diruarekin: "Martxoan hasi ginen rifak saltzen, euro batean, baina oraindik geratzen dira. Maite egongo da sarreran, saltzen, eta zozketa Untzagan bertan egingo dugu, 14:30ean. Ez da lagako saririk banatzeke, denak emango ditugu. Aurretik erositako rifek ere balio dute, ez bota gero!".

Aipatutako guztiarekin batera, Zaporeak elkarteko boluntarioen mahaia egongo da, baita Ardilek eta Arrate Aranburuk emandako artisautza saltzeko postua ere.

Zaporeak elkarteko boluntarioek 2016az geroztik dihardute Greziako errefuxiatuei laguntzen eta egunero 1.300 otordu prestatu eta bertakoen artean banatzen dituzte. ■

## Pregoilariak eta serenoak

Eibarko pregoilariak. Pregoian zer esaten edo kantatzen zen dio Rosariok: galdutako gauzak; udaletxeko erabakiak. Serenoak Rosario gaztea zenean izaten ziren.



Eibarko Txistulari Banda (1935). Ezkerretik eskumara: Leon Laspiur, Florencio Ansola "Txanbolin", Lucio Bengoa, Sabino Barrenetxea "Txatua", Pedro Alberdi "Ospittal".  
EIBARKO UDAL ARTXIBOA-CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA



**Rosario Alcerreca Azconaga**  
(1911 – 2006)

1911. urtean jaiotakoa, Muzategi kalean. Alhondigara joan zen lehenengo ikasketak egitera eta Doña Paca izan zuen irakasle.

## Rosario Alcerrecari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Zeozter galtzen zanian be, baten bateri galtzen bajakon zeozter, pregoia jotzen eben, bai, Pedrok (...). Ene!, pregoian ze daka honek? Se ha perdido no sé qué no sé cuánto... se ha encontrado esto y lo otro... mañana habrá esto y lo otro ta... egoten zan pregonerua. [Eta zer gehixago kontatzen zeban? Plazako gauzak eta be bai?] Ez, plazako gauzak ez, baiña galdutakuak ta... pasatzen dana, zer dagan... Mañana habrá esto y esto en la plaza de Unzaga ta... (...). [Zer zeguan, bakarra?] Bai, batek egitten eban. [Zein zan?] Pedro, danboliña jotzen ebana, Maria Ospitxalenekua. [Ta serenua?] Serenua gabian bai, gure zerian ez, nere denporan eta ez, baiña nere ama eta gaztiak ziranian gabian bazeren horrek (...). Son las doce de la noche, está el sereno (...) Ibarkurutzetik gure etxera juateko. Juaten giñan, etxe batetik, laguntzen egonda eureri, hamaika t'erdixetan edo, ta entzuten genduan igual Casino Artista dagan pegoratik eta... Han dago sereno txikixa! (...) Buenooo, bazatozie? Bai, ta... Hamen egongo naiz bixar be!, esaten zeskun. Baai, bixar arte ta...”

E  
IBARTARREN



## Kaleko saltzaileak eta “erretratistak”

Goxoki saltzailea. “Hiru-txiki”. Karamelua zelan egiten zuten ikusten egoten ziren umetan. Kalean argazkilariak edo “erretratistak” ibiltzen ziren, batez ere uda garaian. Gero etxera joaten ziren kobratzera.

Harindondinen kioskoa, Untzagan, 1956. urtean. FOTO PLAZAOLA.



**Marina Basterra Iturbe**  
(1916 – 2003)

Errebal kalean jaiotakoa, Basterraneko etxean. Aita, Mateo Basterra; aitona, notario izandakoa. Gerra aurreko bizimodua nolakoa zen oso ongi gogoratzen zuen.

# AHOTAN

## Marina Basterrari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Karameluena “Hiru Txiki” zan. Karamelua ez dakit nik zelan egitten eben, baiña goxuagua bazan! Hantxe, zera, pabelloia eguan lekuan... [Kontauko deskuzu hori?] Untzagan, pabelloian onduan eguan txabola bat, txabolia edo... eta zan karamelo bat... ez dakit ba nik zelan egitten eben. Ta gero, karnizeruak eukitzen dabe bat, okelia eskegitteko? Halakotxe bat ipintzen eban hak, eta tira eta tira eta bueltak emoten. Ta gero, aizkora txiki batekin, luzetxen eban eta harekin zatittu. Hantxe aurrian jarritta, beti begira [Eibartarra zan bera?] Ez dot uste, kanpotik etorritta. [Eta ze egoten zan, urte guztian bertan karameluak egitten?] Bai, urte guztian. [Zinera juaten zan jentia eta...?] Klaro! (...). Eta etortzen ziran kalian gero beti erretratistak. Jentia pasiuano edo errekauetara... hartzen. Bat egon zan gure etxe aurrian eta baten, Luzia eta ni, ahizta bixok, bixok igual jantzitta, eta pasatzen giñan, beti etaratzia nahi eta guk bueltia. Ni nigar barik eta ez naiz jun! Esan zeskun: “Ya era hora”. Etorri zan etxera erretratuakin ta, etara ebal. A pagar y hala!”



Enrike Sosola

ENRIKE SOSOLA

## Errebalgo merkatua zertarako?

Mari Jose Barrundi baserrikoa da, Maribi Altzubarrenekoa, Mariasun Mendigoitiko eta Idoia Gisasolakoa. Laurakia egunero merkatu-plazan ikusiko dituzu etxeko mozkinak saltzeko esperantzaz. Bai, egunero, domeka kenduta. Baserritar ekoizleak dira. Lurra landuz, zainduz, gobernatuz elikagaiak sortu eta herritarrei eskaintzen dizkiete. Euren mozkinak zuzenean saltzen dituzten lurraren beharginak dira.

Gerra-ostean eraikitako merkatu-plaza zaharra bota ondoren, gero eta "provisional para siempre" itxura gehiago hartu duen Rialtoko behin-behinekoan daude azken urte luzeegietan, Eibarko zein inguruko beste hainbat baserritarrekin batera. Bere eskasean, Eibarko plaza modukorik gutxi direla konturatu ote gara halakoren batean...

Errebalgo plaza berriaren lanak aurrera doaz. Baserritar ekoizleek ere bere lekua izango omen dute bertan. 2019ko urrian, udaletxean eginiko batzar irekia egin zen hainbat merkatu-plazaren ordezkariak gonbidatu eta plaza-eredua aukeratzeko asmoarekin. Errenteria, Donostia, Azpeitia, Gasteiz eta Bilboko ordezkariak bat etorri ziren: merkatu-plazaren arrakasta bere izatera tradizionalari eustean datza.

Ekitaldi hartatik deigarri egin zitzaidan Bilboko La Ribera Merkatuko gerenteak bota zigun galdera zirikatzailer eta pertinentea: "Eibarren duzuen merkataritza eskaintza harrigarri oparoarekin zertarako behar duzue merkatu-plaza bat?" Alegia, zein premia asetzera dator merkatalgune publiko bat Eibarren?

Honatz erantzungo niokeena denbora eta ausardia pixka bat izan banu Eibarko Udaleko Batzar Aretoko jesarlekutik:

1. Baserriko ekonomiak premiazkoa du merkatu plaza. Zuzeneko salmentak errentagarritasuna hobetzen du, lanpostuak sortu ditzake eta sektorea gaztetu, biziberritu. Beraz, landa-garapenerako elementu funtsezkoa da.

2. Trantsizio ekologikoa, Agenda 21, klima-aldaketa bolo-bolo dabiltzala eta pandemiak zaplastekoa eman digun honetan, inoiz baino beharrezkoagoa dugu kontsumo-ereduaz eta elikadura osasuntsuaz pedagogia eta sentsibilizazio-lana egingo duen gunea. XXI. mendeko plazak horretarako erreminta eraginkorrak izan litezke. Europako herrialde aurreratuenetan horrelako guneak modernitatearen ikur dira, inola ere ez zerbait zaharkunoa.

3. Duintasunagatik. Eibar beharginen herri aurrerakoiak ezin ditu Marijose, Maribi, Mariasun, Idoia eta beste lurraren langileak lan-baldintza hain kaxkarretan egotea onartu. Premiazkoa da errekonozimendua. Hainbeste urtetan, mendeetan, eibartarrak elikatzea lanbidea izan duten nekazari baztertu eta ahaztuekin egingandako zorraren zati txiki bat kitatzeko gutxienez.

Aukera bikaina dugu. Ez dezagula pasatzen laga.



Maria Alonso

MARIA ALONSO

## Besarkadak

Gizartea gelditu zen une horretan, beldurra sentitu genuen une horretan, isilik gelditu ginen une horretan....

Konfinamendu guztian zehar garbi izan dut: ni ere etxean gelditu naiz. Eta etxean jolastu gara, etxean kozinatu, irakurri eta eskulanak egin ditugu, baina batez ere etxean besarkatu gara. Besarkada luze eta goxoak.

Askotan pentsatu dut konfinamenduko aste hauetan benetan zoriontsuak ginela gure etxean, besarkatzeko aukera edukita. Telebistan behin eta berriro entzuten genuen, maitasun eta errespetu seinale gisa, besarkadarik ez ematea zela oraingo honetan bidea, musurik ez ematea zela bidea... eta behin eta berriz zoriontsu sentitu naiz, besarkatzeko aukera nuelako, musuak eman eta jasotzeko aukera nuelako.

Adituek diote bi pertsonen arteko besarkadaren batez besteko iraupena 3 segundokoa dela. Baina ikertzaileek zerbait zoragarria aurkitu dute: besarkada batek 20 segundo irauten duenean, efektu terapeutikoa gertatzen da gorputzean eta adimenean. Baina COVID-19ak hauxe ere lapurtu digu.

Deseskalada aurrera doan neurrian, kaleak betetzen hasi dira, eta ume eta helduok normaltasuna berreskuratzen hasi gara, baina "normaltasun berri" bat da. Besarkadarik gabeko normaltasun bat. Musurik gabeko normaltasun bat. Adituek diotenez etxe-koak bakarrik ahal ditugula musukatu eta besarkatu, besteentzat kaltegarria izan daiteke; birusa, isilpean eta gordeta, hor dago, eta kasu honetan maitasunaren islada distantzia soziala izango da. Besarkadak, oraingo honetan, gerorako!

**“Kasu honetan maitasunaren islada distantzia soziala izango da. Besarkadak, oraingo honetan, gerorako!”**



<<< IBAI LAZKANO • 'Piriniar' maparen egilea >>>

# “*Piriniar* erreferentziazko mapa bat da, Pirinioak ezagutzeko motibazioa emango dizuna”

Pirinioak etxeko egongelara ekarri ditu Ibai Lazkanok. Hainbat urtetako lana egin ondoren Pirinioetako mapa osatu du, informazioa eta diseinua modu paregabearen uztartuz. Proiektua Verkami plataforman ([vkm.is/piriniar](http://vkm.is/piriniar)) partekatu du eta jendeari gustatu zaio proposamena, demaseko arrakasta izan duelako.

IBAI LAZKANO

## Zer da Piriniar?

Pirinioetako mapa da, baina gehien ezagutzen ditugun edo ohikoak diren mapekin alderatuz gero, nahiko ezberdina da. Informazioaren aldetik baino gehiago, diseinu aldetik da ezberdina. Zerbait minimalista egitea nahi izan dut. Hasiera batean proiektu pertsonala zen eta balio erantsirik erakusten ez zuen informazioa kentzen saiatu naiz mapa ahalik eta garbiena lagatzeko. Mendien, mendi-aterpeen, toki ederrenen... aukeraketa bat egin dut, eta logika horren barruan sartzen ez zen guztia kanpoan laga dut. Egia da Pirinioetako barnealdean dauden herriak, errekek, lakuak... errespetatu ditudala eta bertan agertzen direla, baina Pirinioetatik irteten den inguru guztia ezabatu egin dut. Harira joan naiz.

## Mapa minimalista izanik, informazio asko batzen du. Nola moldatu zara hori lortzeko?

Hasieran gauza gehiago sartzeko asmoa nuen, baina informazioa eta diseinua balantzan jarrita oreka bilatzen joan naiz. Batetik, niri gehien gustatzen zaizkidan, adituek gehien gomendatzen dituzten eta Interneten sarritan erreferentzia egiten zaien 160 mendi sartu ditut. Mendi-aterpeei dagokienez, urtean zehar momenturen baten babestuta daudenak sartzen saiatu naiz, guztira 126. Aterpe libreak ez ditut sartu. Pena ematen dit, batzuketerrak direlako,



baina aterpe libreekin sartuz gero mapak ez luke amaierarik edukiko. Bestetik, 12 ibilbide sartu ditut, tartean Pirinioak zeharkatzeko lau modu (GR11, GR10, Pirinioetako Goi Ibilaldia eta Route dels Cols). Horrez gain, 60 toki eder kokatu ditut (nire iritziaren arabera), 47 eski-estazio (eski alpinoa eta snowboard egiteko dauden guztiak) eta Route dels Cols ibilbidean dauden 25 mendate sartu ditut. Informazio asko dago, baina ez da Pirinioetan dagoen guztia.

### Nolako izan da lan-prozesua?

Zaletasun asko dituen pertsona naiz eta mapak txikitatik gustatu izan zaizkit. Proiektu honekin zerotik hasi nintzen orain dela hiru urte. Hasieran, Google Maps-etik ateratako ehundaka pantaila-irudirekin Pirinioetako mapa osatu nuen, baina pentsatu nuen ez zela oso legezkoa. Niretzat bakarrik izango balitz, tira, baina ez nekien nolako bilakaera izan zezakeen. Gainera, grafikoki testuak eta irudiak sartzeko oso mugatua zen. Beraz, mapak nola egin ikasten hasi nintzen eta software libreko Qgis programa aurkitu nuen. Mapa bat egiteko garrantzitsuenak, ezer sartu aurretik, oinarria da. Horretarako DEM izeneko fitxategiak behar dira, mapan landuko duzun tokiaren altuerak jasotzen dituzten fitxategiak, alegia. Nik Japoniako Agentzia Aeroespazialaren DEMak erabili nituen, libre zeudelako. Behin oinarria edukita, altueren kolorea ezarri nien. Puntu altuenei beltza eta baxuenei zuria, diseinu garbia lortzeko. Herriak, errepideak eta horrelakoak Open Street Maps-en bitartez sartu nituen. Bestetik, mendiak toki zehatzetan jarri behar nituen eta horretarako Mendikat-ekoen jarri nintzen kontaktuan, mendien inguruko informazio zehatza dute-eta. Beraz, gpx izeneko artxiboak erabiliz toki zehatzetan jarri ditut. Azkenik, ibilbideak eta eski-estazioak Wikiloc bitartez sartu ditut, eta horrek lan gehiago eman dit.



**“Estetikoki zerbait ederra egiten saiatu naiz, baina era berean funtzionala izan behar zuen”**

### Lan handia hiru urtetan egiteko!

Hiru edo lau urte izan dira, baina maparen % 50-60 itxialdian egin dut. Zirt edo zart egiteko momentua izan da, proiektuarekin aurrera jarraitzeko edo bertan behera lagatzeko. Dena dela, aurreko ikasketak-prozesuak eta egindako lan guztiak ahalbidetu du maparen zati handi bat itxialdian azkar egin ahal izatea.

### Pirinioak goitik behera ezagutzen dituzu?

Pirinioak ezagutzen ditut, baina pentsa litekeena baino gutxiago. Toki askotan egon naiz (Pirinioak errepideko bizikletarekin zeharkatu ditut, oinez Puigcerdairaino joan naiz, mendi batzuk igo...), eta beste askotan ez, baina toki horien inguruan asko irakurri dut, irudi asko ikusi ditut... Mapa egiten konturatu naiz oraindik toki asko ditudala ezagutzeko, batzuk ez nituen ezta entzunda ere.

**“Mapa egitean konturatu naiz oraindik Pirinioetako toki asko ditudala ezagutzeko”**

### Proiektua Pirinioekiko maitasunik abiatzen da?

Bai. Mendia txikitatik gustatu zait, etxean jaso dudana zaletasuna izan da. Batzuek galdetu didate: “Zergatik Pirinioak?”. Euskal Herriko mendiak asko maite ditut eta asko ibili izan naiz haietan, baina txikitatik izan naiz elur-zale amorratua. Elurrak liluratu egiten ninduen eta Pirinioetako web-kamerak, eski-estazioen inguruko albisteak, eguraldiaren inguruko foroak... begiratu izan ditut betidanik. Elurrarengatik Pirinioetara begira egon izan naiz beti. Bestetik, txikitat gurasoekin Puigpedros mendira joan nintzen behin eta GR11 bidearekin egin genuen topo. “Pirinioak alderik alde gurutzatzen ditu”, esan zidaten eta esaldi hori buruan iltzatuta geratu zitzaidan, egunen batean egin behar nuela pentsatuz. Orain dela lau urte GR11 egiten hasi nintzen eta maparen proiektuaren hasierarekin bat egin zuen.

### GPSen eta mugikorretako aplikazioen sasoian mapa paperean egiteko apustua egin duzu. Zergatik?

Nahiko konektatuta bizi den pertsona naiz, baina balioa ikusten nion mapa paperean egiteari. Mapak ikustea, ukitzea... gustatzen zait eta mendia horrekin lotzen dut. Gainera, euskarri fisiko batean egiten duzuna beti gelditzen da hor eta aparatu digitalekin beti zaudete bateriaren menpe. Horrela mapa eskurago dago, zerbait markatu dezakezu, egunero ikusten duzu eta zerbait egitera motibatu ahal zaitu. Internet hain da zabala, galdu egiten zarela. ‘Piriniar’ justu kontrakoa da, informazio multzo handi horretatik filtratuta dagoen zerbait.

### Erromantikoagoa ere bada?

Bai. Ukitu daitekeen zerbait beti da epelagoa. Balio gehiago ematen diot ukigarria den zerbaiti.

### Hala ere, euskarri fisikoak eta digitalak osagarriak dira, ezta?

Horrela da, bai. ‘Piriniar’ erreferentziako mapa bat da, Pirinioak ezagutzeko motibazioa emango dizuna. Gero, mapan agertzen den ibilbide jakin bat egin nahi baduzu, mapa osatutako bat erosi edo ibilbide zehatza mugikorrean deskargatu dezakezu.

### Diseinuari garrantzia eman nahi izan diozula esan duzu. Zergatik?

Egongelako paretan jarriko nukeen zerbait sortu nahi nuen. Estetikoki zerbait ederra egiten saiatu naiz, baina era berean funtzionala izan behar zuen.

### Verkami plataforman proiektuaren babesleak bilatzen diharduzu. Nolako harrera izan du orain arte?

Nire asmoa mapa bat egin, inprimatu eta etxean jartzea zen, baina hainbeste xehetasun dituen mapa inprimatzea nahiko garestia da eta, gastuak partekatze aldera, mapa jende gehiagori eskaini nahi



Ibai Lazkanok egongelako paretean jarriko lukeen mapa egin nahi zuen. IBAI LAZKANO

izan diot. Verkami-n eman dut proiektuaren berri eta 40 egunez nahi duenak ekarpenak egin ditzake. Ekarpenean arabera, mota ezberdinetako sariak jaso daitezke (mapak, mugikorretako pantailetakoko horma-irudiak, mapak egiten ikasteko ikastaroa...). Nire helburua 1.500 euro lortzea zen gastuekin parra egiteko, baina demaseko harrera izan du (ekarpenak egiteko epea amaitzeko 26 egunen faltan

12.000 euro inguru batu ditut), eta asko poztu nau.

#### Hain erantzun positiboa jasota, zerbait gehiago egiteko asmoa duzu?

Bigarren pauso hori ez nuen buruan, baina izan duen harrera ikusita 'Piriniar' markaren barruan sartu daitezkeen beste produkturik egon daitezkeen pentsatzen hasi naiz. Bi aukera ikusten ditut hor. Batetik, beste toki batzuetako mapak egitea.

Baina horrek Pirinioen izaera hori galduko luke eta ez ninduke horrenbeste beteko. Eta, bestetik, argazkilaritza ere asko gustatzen zaidanez, arlo biak uztartzea gustatuko litzaidake. Momentuz, webgune bat egingo dut Verkami-n hasitako kanpainarekin jarraitzeko.

#### Sarien artean maparen 'Ugatz' bertsioa dago. Zer da?

Maparekin zerbait gehiago eman nahi nuen eta Pirinioen

inguruan dauden fundazioak begiratzen hasi nintzen. Ugatzaren Babeserako Fundazioarekin egin nuen topo eta kontserbazio programaren barruan 114 ugatz markatuta dituztela ikusi nuen. Orduan, ugatz bakoitzeko mapa bat sortu dut edizio mugatuan, kolore gorria erabilia, eta mapa bakoitzarekin ugatz bakoitzaren izena eta ezaugarriak jasotzen dituen lamina bat emango dut. Gainera, jasotako diruaren zati bat emango diet.





“Izan Bidea” dinamikan parte hartzeko deia egin du Sarek.

# “Izan bidea” abiatu du Sarek, preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko

“Izan bidea” Sarek abian jarri duen dinamika berria da; euskal preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko urratsak eman eta kilometroak egitea da asmoa. 3.127.326 km hain zuzen ere!, Euskal Herriak adina biztanle. Ekimenaren oinarrian elkarbizitzaren eta bakearen aldeko ibiltarien sare erraldoia osatzeko erronka dago. Kilometroak zenbatzeko telefono mugikorrendako aplikazioa sortu dute.

**H**iriburuetan maiatzaren 29an hasi ziren bidea egiten, eta apurka-apurka herri askotan ari dira dinamika ezagutzera emateko ekimenak antolatzen. “Izan Bidea”-rekin Sarek “preso eta iheslarien auziari behin betiko aterabidea emateko pausoak eman, jendarte aktibazioan sakondu eta herri honen aniztasun eta zabaltasuna batzea” lortu nahi du.

Sarekideek uste dute “momentua orain” dela: “auzia konpontzeko aukera ireki da; gaur egun pandemiaren eraginez bizi dugun egoerak

inoiz baino argiago utzi ditu espetxeetan bizi den egoera eta salbuespen legediak dakartzan ondorio krudelak”.

Sarek hiru printzipio ditu oinarri. Alde batetik, “gure iragan bortitz hurbilenaren ondorioak eta, bereziki, oraindik ere ehunka preso eta erbesteratu dituen egoera hau behin betiko gainditzea nahi dugun ibiltariak gara”. Horregatik, “eragile aktibo” izateko deia egin du, “euskal preso eta erbesteratu guztien etxeratze-prozesua garatu ahal izateko adostasun politiko eta soziala lortzeko”. Azkenik, “elkarbizi-

tzan eta erabateko eta behin betiko bakean oinarritutako aro berri batera eramango gaituen bidea elkarrekin egin nahi dugun ibiltariak gara”.

## Ezaugarriak

Euskal Herriak dituen biztanleak adina kilometro ibili nahi ditu “Izan Bidea” dinamika: 3.127.326. kilometro horiek guztiak egitearen xedea da “bidea egitea; etxerako bidea, elkarbizitzarako bidea, bakerako bidea”. Km-ak zenbatzeko Sarek telefono mugikorrendako aplikazioa sortu du (Android sistemara-

**“Sarek telefono mugikorrendako aplikazioa sortu du kilometroak zenbatzeko”**

ko). Aplikazioa deskargatu, izena eman eta km-ak ibiltzea da proposamena. Bestelako jarduerak ere km bihurtuko ditu aplikazioak: antola daitezkeen zumba-maratoiak, dantzaldiak edota kamiseta janztea bera. Aplikazioa ondorengo loturan deskargatu daiteke: <http://labur.eus/ap-pizanbidea>

Bakoitzaren ekimena erregistratzeko bi aukera egongo dira aplikazioan: "jarduera" klikatuz zure ibilbidea automatikoki mugikorrek jasoko du (mugikorraren kokapena aktibatuta izan behar da horretarako). *Eskuz* klikatuz gero, egin duzun ibilbidearen

datuak norberak sartu beharko ditu".

Sarek herritar guztiak "ibiltari izatea" nahi du, norbanako moduan edo era kolektiboan. Sarekideek diotenez ekimenak balioko du "dagoeneko sare-tzen ari diren adostasunak era ikusgarriagoan plazaratzeko". Horregatik, parte hartzeko deia egin diete "bakearen eta bizikidetzaren bidea egin nahi duen edonori. Guztiok norabide berean egin dezakegu".

Sare-ren web-orrian dinamika berriaren merchandisinga begiratu daiteke (<http://sare.eus/izan-bidea/>). Bertan eskuratu daitezke kamisetak eta bizi dugun osasun-krisian ezinbesteko bihurtu diren maskarak.

#### Geziaren sinbologia

Gezia aukeratu du Sarek dinamika honen sinbolo moduan. Gezi hori irteera markatzen duten gezieta, jarraitu beharreko bidean eta errepideetako seinaleztapenean inspiratuta dago: "Aurreranzko bidea izan nahi du, urratsez urrats dinamika berri honekin lortu nahi dugun aurrerapen hori. Sinbolo erraza, ulerterraza, bisuala eta denek ezagutzen dutena. Aurreranzko bidea markatzen



## "Sarek herritar guztiak ibiltari izatea nahi du, norbanako moduan edo era kolektiboan"

digun gezi bat, etorkizun hobe baterantz, bakean eta bizikidetzan oinarritua, eta etxera itzultzeko bidea markatzen duena".

#### COVID-19aren ondorioak

COVID-19a dela-eta ezarritako alarma-egoerak espetxeetako egoera gogortu du, hainbat kasutan, presoen eta euren senideen egoera muturrera eramateraino.

Gaur egun, gaixotasun larriak dituzten 17 euskal preso daude; 70 urtetik gorako bi preso daude, 65 urtetik gorako 12 eta 60tik gorako 24. Estatu espainiarrean kartzelan

dauden euskal presoen %80 etxetik 1.000 eta 400 kilometro artean daude, eta Estatu espainiarrean dauden 198 euskal presoetatik 156 lehen graduan daude. Sarek adierazi duenez, "horri, alarma-egoerak ekarritako kalte gehigarriak gehitu behar zaizkio: urrutze-politika dela-eta indarrean den bisiten debekua, gurasoak ikusi gabe ia hiru hilabete daramatzaten motxiladun haurrak edota gaixotasunaren hedapena ekiditeko ezarri diren espetxe barruko neurriak, zeinaren ondorioz, espetxealdia oraindik eta bortitzagoa bilakatu den".

Hori guztia salatu eta lau neurri eskatu dizkie Sarek Espainiako eta Frantziako gobernuari: euskal preso guztiak Euskal Herrira ekartzea, gaixotasun larriak dituzten presoak eta 65 urtetik gorakoak askatzea, presoei eta senideei dagozkien bisitak berreskuratzea eta gradu-aldaketak ahalbidetzea baldintzak betetzen dituzten presoak etxean egon daitezkeen. Neurri horien inguruan Sarek nabarmendu du haiek ez ezik beste hainbat erakunde, eragile eta sindikatuk ere eskatzen dituztela neurriok. ■

**FUNEUSKADI**  
Grupo Korta

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeruskadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Elbarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ernuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**KARLOS**  
carniceria  
harategia

**Jarduera betean dagoen  
HARATEGIA TRASPASATZEN da**

**INTERESGARRIA, MERKEA  
ETA HIRIGUNEAN**

Juan Gisasola, 8  
943-203982 (09:00etatik 14:00ak arte)



# Lehengo abiadura hartzen

Mugikortasun-mugekin, telelanarekin, urrutiko ikasketekin eta etxean gelditzeko aginduekin errepideak erdi hutsik egon dira hainbat astetan. Orain, poliki-poliki, autoek, autobusek eta kamioiek beren tokia hartu dute eta ohiko joan-etorrian dabilta. Gidatzen ikasten dihardutenek ere balazta zapaldu dute. Bidean ez dituzte ohikoak baino oztopo gehiago aurkituko, baina ohikoak baino segurtasun-neurri gehiago hartu beharko dituzte auto barruan.

**U**da sasoia aproposa izan ohi da gida-baimena ateratzeko. Normalean jende gazteak ematen du izena autoeskoletan, eta, uda eskola bariko sasoia izanik, denbora gehiago izan ohi dute. Aurten, ordea, ezer ez da berdin.

Autoeskolek garai nahasiak bizi izan dituzte aurreko urteotan. Aztertzaileek greba egin zuten denbora luzez, eta, itxialdia hasi aurretik ohiko jardunera bueltatzen ari baziren ere, itxialdiak gehiago aztoratu du egoera. "Itxarote-zerrenda luzea da", esan digute Solozabal autoeskolakoek. "Jendea ohiko

erritmoan ari da apuntatzen, baina, grebaren ondorioz itxarote-zerrenda zegoenez eta hiru hilabetetik hona azterketarik egin ez denez, zerrenda handitu egin da". Dena dela, oraindik ofiziala izan ez arren, seguruenik azterketak abuztuan egin ahal izango dira.

## Beldurretik lasaitasunera

Azken asteotan autoeskolek ateak zabaldu dituzte berriz eta hasiera nahikoa arraroa izan da ikasle zein irakasleentzat. "Hasieran beldur pixka batekin itzulitza, azterketen data zehatzik jakin gabe... bai-

## "Aztertzaileen grebaren eta itxialdiaren ondorioz, itxarote-zerrenda asko luzatu da"

na orain lasaiago gaude", esan digute El Velocímetro autoeskolakoek.

Azterketa teorikoak maiatzaren 27an hasi ziren eta praktikoak datorren astean hasiko dira, 18an, eta hamabost egunean behin egin ahal izango dira.

Itxialdiak bat-batean gelditu zuen ikasle batzuen prestakuntza eta orain berriro hasi behar izan dute gidatzen ikasten. "Ez dira zerotik hasi, baina berriz ohitu behar izan dute", Solozabalakoek diotenez.

## Segurtasun-neurriak auto barruan

El Velocímetro ez ditu aurreko aurreko klase teorikoak

## ALFONSO RODRIGUEZ FERNANDEZ III. URTEURRENA (2017-VI-10)



*"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"*

ZURE LAGUNAK





Autoeskoletako autoak errepidera itzuli dira berri.



Bi hilabete eta erdiz autoak geldirik izan dituzte autoeskolet.

ematen (“Skype bitartez izaten dugu harremana ikasleekin”), baina Solozabalek, Arratek eta Zezenbidek bai.

Zentzu horretan, neurri bereziak hartu behar izan dituzte klaseak emateko. “Itxialdi aurreko egoerarekin alderatuz

## “Azterketa praktikoa egiteko autoan ikasle bakarra joan daiteke, maskara eta eskularruekin”

geo, beste erritmo bat daramagu orain. Bi gela ditugu zabalik, ikasleen artean gutxieneko tartea utzi behar dugu, garbi-

tasuna asko zaintzen dugu... Beraz, ikasle gutxiago etortzen dira klaseetara eta gehienek etxetik egiten dute”, esan digute Zezenbidekoek.

Klase praktikoei dagokienez, neurri bereziak hartu behar dituzte orain. Orokorrean ikasle bakarra joaten da autoan irakaslearekin, biek maskarak eta eskularruak jantzi behar dituzte, eta klasea amaitutakoan ikasleak ukitutako guztia garbitzen da: bolantea, esku-balazta, aldagailua... Hori egin ahal izateko denbora behar da eta, ondorioz, mugatu egiten da egunean zehar egin daitezkeen klase praktikoen kopurua.

Poliki bada ere, autoeskolak badoaz abiadura hartzen. ■

## ARRATE OLASOLO ARRIZABALAGA

2020ko ekainaren 5ean hil zen

FAMILIAREN IZENEAN, **eskerrik beroena** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

Bere aldeko **MEZA emango da ekainaren 14an (domeka), eguerdiko 12.00etan, SAN ANDRES parrokian.**



>>> Zelaia baino gehiago, egia esateko, aurkaria izango du zaila Mendilibarren taldeak. Real Madrilek hartuko baitu eibartarren bisita domeka arratsaldean, 19:30ean hasiko den norgehiagokan. Partidua, hori bai, Valdebebasen jokatuko da, Castilla filialak jokatzen duen zelaian, Bernebau obretan dagoelako. Beldur eszenikoa deitzen den hori kenduta ere, ez dute erraza izango eibartarrek bertatik puntuak ekartzea.

LaLiga 1. Mailako beste taldeentzat jenderik gabe jokatu beharreko lehenengoko partidua izango bada ere, Eibarrek aurretik bizi izan zuen horrelako bat, lehiaketa bertan behe-geratu aurretiko azken partiduan Reala hartu baitzuen Ipuruan egoera berean, azke-

## Eibar FT-k 11 jardunaldiko azken txanpari ekingo dio zelai zailenetako batean



Aurreko denboraldian Eibarrek 3-0 irabazi zion Real Madrili Ipuruan.

nean 1-2 galtzeko. Une honetan jaitsiera postuak bi puntu- ra dituzte eibartarrek eta, hori gutxi balitz, hainbat jokalariri klubarekin duten kontratua amaituko zaie; kasu horretan daude Pedro Leon, De Blasis, Charles, Cristoforo, Orellana, Escalante eta Ramis. Azken bi horiek baja izango dira Madril- en ere: argentinarra zigortuta dago eta atzelari beteteranoa min hartuta.

Denboraldi amaierara arte geratzen diren partiduen ordutegiak ere lotzen doaz pixkanaka eta, horrela, azken egunotan beste bi partidutarako hasiera orduak jakinarazi dituzte. Eibarrek 19:30ean jarraituko du jokatzen: 17an Athletic-ekin Ipuruan, 20an Getafen eta 25ean Valentziarekin Ipuruan.

## Txirringularitzak urrian hartuko ditu herriko kaleak: Valenciaga Memoriala eta Espainiako Itzulia

>>> Gauzak hainbeste aldatu dira azken aldiaren, orain arte bizigabeko egoera askoren aurrean aurkitzen garela behin baino gehiagotan. Horrela, bizikletak udarako zirela ziotenek ere erreparatu handiagok esango dituzte halakoak hurrengoan. Eta dagoeneko jokatuta izan beharko ziren proba batzuen esperoan aurkitzen gara, beti ere jokatuko diren itzaropenean. Euskal Herriko Itzulia datorren urterako geratu zen, momentuz behintzat aurtengo edizioiko etapak errespetatuz. Baina afizionatuen mailako estatuko probarik entzutetsue-

nak, Valenciaga Memorialak, beste ahalegin bat egingo du eta urriaren 11rako dago iragarrita. Espainiako Koparako baliagarria den proba 1972an sortu zuten Eibarko Txirringularitza Elkarteok eta etenik gabe jokatu da orain arte, kenduta 2018ko edizioa, istripu baten ondorioz bertan behera laga behar izan zuten-eta.

Bederatzi egun geroago, urriaren 20an, profesionalen ordua izango da, Espainiako Itzuliaren lehenengo etapa Iru- nen hasi eta Arraten amaituko baita. Itzuli hori Herbereetan hastekoa zen hiru etapekin, bai-



na horiek kendu egin dituzte azkenean. Arraten amaituko den etapak 170 kilometro izango ditu eta, tartean, 2. mailako Karabieta eta 3. mailako Udana eta Kanpazar igoko dituzte helmugaren bila joan aurretik. Eibarrera Elgetatik jaitsiko dira txirringulariak, Untzagara hel- du eta Amañarako bidea har-

tzeko. Helmuga prestatzeko lanak bi egun lehenago hasiko dituzte, Arrateraino igoko diren 30 trailerrekin eta Untzagan kokatuko duten aisialdirako Itzuli Parkearekin. Orain dela zortzi urte, 2012an, Alejandro Valverde irabazi zuen Itzuli- lico hartako laugarren etapa (argazkian) eta lider jarri zen.







Mikel Zabala Somosen nabarmendu zen. Argazkian Gaizka Bilbaorekin.

## Mikel Zabalak 2023ra arte luzatu du Bidasoarekin zuen kontratua

>>> 22 urteko ezker hegaleko jokalaria bigarren denboraldia egin du Irunen eta, orain min hartuta badago ere, lesiotik ondo errekuiperatzeko moduko berria jaso du, Asobal ligako Irungo taldearekin 2023ra arte luzatu baitu kontratua. Min hartu zuen arte, sasoi honetan Asobal ligan 29 gol sartu zituen hamabost partidutan eta Txapelaldun Ligan beste 22 gol hamar lehiatan. Zabala 2018ko udan heldu zen Irun-

go taldera lehenengo urratsak gure herrian egin eta Somos Eibar Eskubaloiko erreferentea bihurtu ondoren.

Akilesen tendoian izandako lesiotik errekuiperatzeko azken fasean dago gaur egun, baina bestela Bidasoara joan zenetik partidu guztietan hartu izan du parte. Horrez gain, gazte mailako Espainiako selekzioetan jokatu izan du eta iaz, esaterako, junior mailako Munduko Txapelketan hartu zuen parte.



## Aspeko pilotariak astelehenean hasiko dituzte entrenamenduak

>>> Eibarko pilota enpresak eta pilotariak akordioa lortu dute martxo amaieratik zehden aldi baterako erregulazioa bertan behera lagatzeko. Hori dela-eta datorren astean hasiko dituzte entrenamenduak. Aspek 22 pilotari ditu plantillan eta Pedro Ruiz Errioxako atzalaria da kontratua berritzeko egoeran dagoen bakarra; beste guztiek kontratua indarrean dute. Astelehenean hasiko dituzten entrenamenduak Jokin Etxaniz zuzendari teknikoak eta Jon Apezetxea intendenteak zuzenduko dituzte. Profesional mailako eskuko pilotan dagoen beste enpresa handiak, Baikok, bide beretik jotzeko asmoa du,

kasu horretan kontratua amaituta edo amaitzeaz dituzten pilotariak bederatzi badira ere. Enpresa biek euren telebista eskubideak ETBekin arlo hori kudeatzen duen Baint enpresaren esku dituzte eta uztailearen hasieran partiduak eskaintzeko asmoz dabilta lanean.

Bestalde, Laboral Kutxa Emakume Master Cup berriro jarriko da martxan ekainaren 21ean, Elgoibarren hain zuzen. Domeka horretan, 12:00etan hasita, pilota goxoko finalerdiak izango dira jokoan. Bertan irabazle suertatzen diren bi bikoteek osatuko dute hilaren 28an Irungo Urantzu pilotalekuan jokatuko den finala.

# 10 EGUNKIA

ESKAITZA EZIN HOBEAK ekainaren 11tik 22ra

Sarrerarik gabe eta ez ordalindu abendura arte.

Elektrifikatuak barne

The Power to Surprise

## NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1. Eibar  
943 70 70 33  
www.naiacar.com

"Bezerearen babesa" kanpainak finantzatutako ibilgailuentzat. Banco Cetelem S.A.U. k eskaintutako finantzazioa, 4 hilabeteko gabeziarekin. Sortutako interesak kapitalari metatuko zaitziko. Hasiarako ordainketarik gabe, erosteko unean. Partikularentzat, 2020/06/11tik aurrera, Penintsula, Balearretan, Ceutan eta Melillan, eta gubuenez 36 hilabeteko egonaldiarekin. Ezin da beste eskaintza batzuekin metatu. Ekaineko kontratazioak uztailean formalizatuko dira. Kontsultatu baldintzak www.kia.com-es.

<<< MARTIN EGIGUREN • El Conquis saioko parte-hartzailea >>>

# “Sofatik nabaritzen duguna baino askoz gogorragoa da bertan bizi izandakoa”

Eibarko gaztea pozik dago “El Conquistador del Caribe” ETB2ko realityshow-ean egindako lanarekin eta nahikoa aurrera egin zuela uste du, “aldamenean nituenak kontuan hartuta, edozein edizioetako indartsuenak zirelako”. Guaraguao talde gorriarekin hartu zuen parte lehen fasean eta hainbat urrats eman zituen bigarrenean ere. Saioaren 16. edizioko gure ordezkaria aurreko urtekoan zen parte hartzekoa, baina auto batek harrapatu eta ospitaleratu zutenez oraingorako gorde zioten tokia.

## Noiz irten zinen hemendik eta noiz bueltatu?

Urriaren 31 abiatu ginen eta, handik hiru astera, azaroaren 21erako bueltatu. Hiru asteko kontua, hain zuzen. Guk han bizitutako egun bakoitza astearen parekoa da telebistan jarraitzen digutenentzat. Bidaia hasi eta lehenengo harremana Elgoibarko Gorke Lunarekin izan nuen eta ezustea izan zen, guztiontzat, lehen taldea mutilekin bakarrik osatuta zegoela jakitea.

## Prestaketa berezirik egin zenuen joan aurretik?

Denbora gutxi ematen dizute horretarako, joan baino bi hilabete aurretik jakinarazten dizuetelako aukeratu zaituztela. Jumareatu egin nuen pixka bat, sokekin zeozer... gauza handirik ez.

## Urtebete lehenago istripua ere izan zenuen, ezta?

Saiora joateko bi egunen faltan, bizikletan nindoala, auto batek harrapatu ninduen bidegorrian. Lepauztaia apurtu nuen eta bizkarreko ornoa ere ikututa izan nuen. Azkenean, urte osoa behar izan nuen errekuiperatzeko, batez ere mentalki. Lau-bost hilabete eman nituen kortse batekin. Ikasketetan ere eragin zidan, nahiz eta gero gainditu.

## Zenbat kilo galdu zenituen saioan? Askok kostatu zitzaizun berreskuratzea?



Azken edizioeko marka jarri nuen: 12 kilo. Hori bai, irten eta pare bat astera berriro nituen nirekin. Jan eta jan, geratu barrik ibili nintzen, ogitarteko bat amaitu eta hurrengoari ekin.

## Jokatu zenuen ekipoetan zelan moldatu zinen? Eta kapitainekin?

Lehenengo taldea, gorri kolorekoa, belatzena zen eta ezin bikainago moldatu ginen: elkar oso ondo ulertu eta bat egin ginen berehala. Bigarren taldearekin desberdina izan zen: ni ere nekatuago nengoan eta konpetibitate handia somatu nuen besteen artean. Giro hori ez nuen gustuko eta Isku gertu-

koen nuen laguna joan zenean gehiago nabaritu nuen.

Kapitainei dagokionez, Gozonekin primeran moldatu nintzen: maitagarria da, telebistan beste irudi bat eman duten arren, eta gauzak diren moduan esaten ditu, aurretik genkigun beti nominazioak zientzat izango ziren. Manuk,

bestalde, fama onik ez badu ere, niri behintzat behar nuen la-saitasuna eman zidan; Seleta baino nahiago dut..

### **Proben iraupena zenbatekoa izaten da gutxi gorabehera? Eta kanporaketakoena?**

Ordu erdiren bueltan. Kenduta deskalifikatu gintuzten hura, bultza egitekoarena... 10 segundotan kanpoan ginen. Eta etxera joateko arriskua duzun final horiek ere antzerako iraupena izaten dute.

### **Zuretzat zein izan zen jokorik aproposena, erosoan moldatu zinen? Eta zein kaxkarren irten zitzaizuna?**

Tronkaolan oso ondo aurkitu nintzen, oraindik energiarekin ikusten nintzen. Kaxkarren... ez dut ezer berririk esango etxera bidali ninduen proban ibili nintzela badiot. Ia ezertarako ez nengoen.

### **Diotenez, arazo askorik ez zenuen izan lo egiteko. Horretan desberdina zinen ala?**

Azken eguna kenduta, egunero zortzi bat ordu egiten nuen, bai. Besteei askoz gehiago kostatzen zitzaaien lo hartzea, baina nik arazorik ez. Eguraldia ere, azken egunera arte behintzat, ondo portatu zen gurekin.

### **Hemen lagatakoarekin askotan gogoratzen zinen: etxe-koak, lagunak...?**

Gehiago amesten nuen jatekoarekin. Hori Gotzonek jatekoari buruz hitz egitea debekatu zigula. Lotara joan aurretik berdel lata bat garbitzen genuen, jokoak hasi aurretik zazpi fruitu lehor energia pixka bat izateko... hori zen guztia. Azken egunetan ez bazenuen jokorik irabazten ez zen giro, bi-hiru lata zortzi egunerako.

### **Zuretzat, zer da beharrezkoa konkistadorea izateko?**

Zortea, batez ere. Nik nahikoa egin dut, horri esker. Batzuk esaten dute %50 psikologikoa dela eta beste erdia fisikoa. Nire ikuspuntutik, %40 emango nieke arlo bi horietako bakoitzari



### **“Telebistan nahi dutena ateratzen dute: liskarrak ondo eramateak baino gehiago saltzen du”**

ri, eta beste %20 zortzeari. Nominazioetan, bestalde, ikusi da orain ere emakumezkoak galtzaile irteten direla, talde urdinean zegoen Adrianaren kasuan esaterako, eta ez du ematen jarrera hori aldatzeko asmorik dagoenik.

### **Jarrera lasaia erakutsi duzu saioan. Horrelakoa zara?**

Konformatzen naiz emandako irudiarekin, nahiz eta bigarren fasean, batez ere energia gutxiarekin nengoelako, kalean baino hitz gutxiago egin dudana.

### **Zer egin zaizu gogorren abenturan? Zer izan duzu gustukoena?**

Eltxoak, horiek bai gogaikarriak. Tinpanoetaraino sartzen zitzaizun akaberarik gabeko zarata hori. Unerik onena, bestalde, pizza erraldoia irabazi genuena, gozatu nuen.

### **Berriro bueltatuko zinateke Conquisera? Jendea animatuko zenuke?**

Ezta ordainduta ere; etxetik

### **“Edizio honetan kilo gehien galdu zuena izan nintzen; gose handia pasatu nuen abenturan”**

ikusten dena baino askoz gogorragoa da, ez pentsa. Animate, bai, nire lekukoa hartu nahi duenak hor du aukera.

### **Hanizandakoak elkartzarete abenturaren ondoren? Benetako lagunak egin izan duzu?**

Bai, hirutan edo izan gara elkarrekin. Bazkari eta afarirako aukerak izan ditugu talde guztietakoekin. Gorritz ibili ginenon artean baditut lagunak eta Isku eta Pali zarauztarrekin oso ondo moldatzen naiz.

### **Nahiz eta ezingo duzun esan, jakingo duzu zeinek irabazi zuen, ezta? Zein da hartzen duzuen konpromisoa?**

Jakina, parte hartzen genuen guztiok dakigu, baina kontratuan onartzen dugu inori ez diogula ezer esango. Hala ere, etxean bazekiten gutxi gorabehera noiz amaituko nuen nire abentura... noiz bueltatu nintzen jakinda, horren arabera erraz kalkulatu zuten... Hori bai, nire azken programa-ko protagonista izango nintzela

aurreratu nien; nahikoa azaldu nintzen programa horretan.

### **Telebistan ondo islatzen dute zuek han bizitutakoa?**

Ezta pentsatu ere. Nahi dutena ateratzen dute. Gorrien kanpalekuan gure artean genuen giro ona atera beharrean, nahiago izan dute Gotzon diktadorea balitz moduan azaltzea. Esango dizute agertzen den guztia gertatutakoa dela, baina programak ez du gertatzen dena adierazten. Egia esan, 24 orduetik hamar ezer egin gabe pasatzen genituen egunero. Julian Iantzi ere jatorra dela diote, baina han nahikoa sartzen zen guztiokin.

### **Ospetsu egingo zintuen telebistan azaltzeak. Gustura emaitzarekin?**

Grazia handia egiten dit, batez ere. Harremanetarako-eta inoiz ez dut arazorik izan, eta honekin ere berdin. Ezagunagoa zara, hemen inguruan behintzat, baina ez da besterik. Instagram-en hara joan nintzenean 700 jarraitzaile banituen, orain 2.200... Beste barik.

### **Umorea behar da benetan horrelako oinazeak pasatzea ezer ez irabazteko. Zenbatekoa da irabazlearentzat dagoen sari bakarra?**

20.000 euro eramaten ditu. Gero, beste sari bat dago, jendearen faboritoarentzat: 2.000 euro eta Karibera bidaia irabazten du azken horrek. Nik aukera hori aurreko astean galdu nuen.





## Sanjuanetan bost ekitaldi egingo dira, denak ateak itxita

Sanjuanetarako bost ekitaldi antolatuko ditu Udalak, denak ateak itxita, eta grabatu eta zuzenean emango dituzte, Udalaren komunikazio kanaletan. Hala erabaki zuten Kultura batzordekideek aurreko barixakukuko bileran, "osasun publikoa arriskuan jar dezaketen jendepilaketak saihesteko".

Ekainaren 23an, 11:00etan, Usartza Txistulari Bandak San Juan Zortzikoa eskainiko du eta 13:00ean Lizarrako dulzaineroen emanaldi laburra egingo da. Biak udaletxeko patioan egingo dituzte. Horrez gain, omenaldia egingo zaie Debabarreneko osasun-langileei

(Ospitaleko langileak, zahar-etxeetakoak, Gurutze Gorriko boluntarioak, eta beraien ekimenez aurpegiarako maskarillak eta pantailak egin dituztenak). Iluntzeko 20:00etan, Coliseoan, Liskerrek emanaldia egingo du. Eta ekainaren 24an Kezka Dantza Taldearen txanda izango da, 20:30ean Coliseoan.

Bestalde, jaiekin zer gertatuko zen jakin aurretik, kartel lehiaketa deitu zuten eta Ene-ritz Larrea elgetarrak irabazi du, "Festak jarrai dezala" kartelarekin. Haurren artean Andoni Olcoz Gerardi (10 urtera arte) eta Lorea Sarasketa Salomon (11-14 urte) izan dira irabazleak.

## Ego Ibarrek Eibarko ermiten inguruko ahozko testigantzak eta irudiak batuko ditu

Ego Ibarra batzordeak Salbadore, Akondiako San Pedro, Santakurutz, San Martin, Maala eta Sandroman auzoetako ermiten inguruko ahozko testigantzak eta irudiak batuko ditu aurten. "Nola ez, Aginagako San Migel elizatea eta santutxuak ahazteke", zehaztu dute. Eibarrek hainbat ermita eta eliza izan ditu historian zehar, baina horietako asko galdu egin dira: Orbeatarren elizaxoa (1927); Errebalgo komentua (1602); Isasiko eliza (1597); Azitaingo San Rafael (1927); Untzagako San Juan (1556); San Esteban



(1620); Santa Ines (1550); Ibar-kurutzeko ermita (1694). Betikiko galdu den erlijio-ondarea asko denez, Ego Ibarrek proiektu hau jarri du martxan.



## Euskal garagardoaren dastaketa

Martitzenerako ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu duen euskal garagardo-dastaketarako toki guztiak bete dira. Boga kooperatibakoek eskainiko duten saioa ...eta kitto!-ren lokaletan egingo da, 18:00etan hasita, segurtasun neurri guztiak ondo zainduta. Mungian fabrika duen kooperatiban garagardo naturala egiten dute, artisau eran eta kalitatezko lehengaiekin eta horietako batzuk probatzeko aukera izango dute datorren aste saioan.

## Egunean Behin joko zuzenean

Aste honetan hasita eta lau astez, zuzeneko beste emanaldi sorta bat egingo dute Egunean Behin jokoarekin. Lau eguztenetan, gaueko 21:30ean, Youtubetik ikusteko eta aplikaziotik jokatzeko moduan, zuzenekoetan jauzia emango dute. Saioak Edurne Azkaratek aurkeztuko ditu eta bakoitzean gonbidatu bat izango dute, "harekin batera jardun eta jokatzeko". Antton Telleria irrati eta telebistako esataria izan da lehen jokalaririk gonbidatua. Galdera-erantzunen euskerazko jokoaren sortzaileen berbetan, "Gipuzkoako Foru Aldundia- ren babesarekin, eta Elkar dendetako bonoak opari gisa, zuzeneko lehiaketa partehartzaile guztiei irekita egongo da. Abenduan, Azpeitiko San Agustinen egindako finalean, 150 lagunentzako jokaldi simultaneo antolatu genuen, eta Youtube bidez konfinamenduaren erdian, 400 lagun arteko saioak izan genituen".



## Zeramika Eskolako lana bideoan

Eibarko Udal Zeramika Eskolako ikasleek "Izarren hautsa" izenburuko proiektua landu dute 2019-2020 ikasturtean zehar, Esther Galartza eskolako arduradun eta irakaslearen gidaritzapean. Klasean egindako lana nolako den eta horren emaitzak jendeari erakusteko bideoa prestatu eta Youtubera igo dute.



Txakur itxura emanaz gero, Puppy Eibarren. RAY MUÑOZ.

1				9			
		8		1			
				2	4		5
4		6	2	8	5		
	7						3
		9	4	6	8		1
3		4	1				
			8	3			
			3				9

		4			6	1			
2								6	
3					9			5	
9	1			5	4	8			
		6	3	1				2	5
	5		1						9
		8							7
			5	2				3	

soluzioa


8	3	1	7	2	4	9	6	5
2	6	2	8	1	5	3	4	7
1	9	3	4	5	6	7	8	2
4	6	2	8	5	3	1	7	9
7	5	9	1	6	8	3	4	2
9	4	6	8	3	1	2	5	7
3	4	1	5	7	9	8	6	2
5	7	8	3	6	4	2	1	9
6	2	9	1	3	7	5	8	4

## SUDOKUAK



soluzioa

9	1	4	2	5	6	3	7	8
2	6	3	8	1	5	4	9	7
4	9	7	1	3	8	6	2	5
6	3	8	5	2	1	4	7	9
7	5	9	6	3	2	1	4	8
1	8	6	4	9	7	5	3	2
5	2	1	3	7	8	9	6	4
3	7	2	9	8	6	5	4	1

## LABIRINTOIA



## 5 DESBERDINTASUN



## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Farmaziak

### BARIXAKUA 12

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

### ZAPATUA 13

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

### DOMEKA 14

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

### ASTELEHENA 15

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

### MARTITZENA 16

EGUNEZ | Lafuente (Sostoatarren, 10)

### EGUAZTENA 17

EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 18)

### EGUENA 18

EGUNEZ | Iraundegi (Calbeton, 19))

### BARIXAKUA 19

EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6))

GAUEZ BETI, 2020an,

Barandela (Ziriako Agirre, 4)

## Eguraldia (euskalmet.net)



## Hildakoak

- **Carlos Ajuria Dudagoitia.** 57 urte. 2020-6-2.
- **Arrate Olasolo Arrizabalaga.** 75 urte. 2020-6-5.
- **M<sup>a</sup> Teresa Solozabal Olalde.** 88 urte. 2020-6-10.

## Jaiotakoak

- **Marourane Benomar.** 2020-5-10.
- **Lukas Zamakola Torre.** 2020-6-4.
- **Andre Tahir Gutierrez Martinez.** 2020-6-5.

ek!

**ESKELAK,  
URTEURRENAK  
ESKERTZAK...  
jartzeko:**

**943 20 09 18**  
publizitatea@etakitto.eus

ek!

**ETXEKOEN  
ZORION-  
AGURRAK  
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus





943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, **AIORA**, astelehenian 5 urte egingo dozuzelako! Segi beti bezain alai! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN**, martitzenian 2 urtetxo egin zenduazelako!! Besarkada potolo bat etxekuen partez! Maite zaittugu, sorgintxo!



Zorionak, **MARKO**, etxeko txikixari, domekan 4 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat aitxitxa eta amamaren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **AITANA**, hillaen 10ian 10 urte bete zenduazelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IXONE**, astelehenian 10 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo pasa zure egunian. Musu erraldoia guztion partez.



Zorionak, **NORA**, astelehenian 9 urte egingo dozuz-eta. Eta zorionak, aitxitxa **JOSE MARI** eta amama **MARIAN**, zeuen urteurrenien.

ek!

...eta kitto!  
Euskara Elkartearen astekaria

943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus


**LUIS ITURBE LARRAÑAGA**

**I. URTEURRENA: 2019-3-21**

Joan zinela urtea pasata ere, zure irribarrea eta samurtasunak gure artean jarraitzen du betirako.

**“Beti gure bihotzetan” ETXEKOAK**

**URTEURREN MEZA** ekainaren 14an (domekan) emango da, equeurdiko 12:00etan hasita, San Andres parrokian.



# Iragarki laburrak


**943 20 09 18**

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Neska euskaldunak etxea hartuko luke alokairuan Untzagatik gorako auzoetan. Tel. 646-369330.
- Bikote arduratsua eta lanarekin etxea hartuko luke alokairuan. Tel. 649-662386.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberrira kalean. Tel. 610-835256

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da igeltsero moduan, garbiketarako egiteko eta abar. Tel. 666-101558. Menlya.
- Mutila eskaintzen da eraikuntzak lan egiteko, garbiketarako eta abar. Tel. 687-141217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernetan lan egiteko eta garbiketarako. Tel. 677-136446.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziakin. Tel. 671-330459.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 689-003537.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 685-386485.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-108345.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 5 urteko esperientzia. Tel. 662-045996.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Orduka. Tel. 660-542155.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 623-340850.
- Gizonezkoa eskaintzen da arotz lanetan, metalurgian edo laborategi-laguntzaile jarduteko. Tel. 632.593515.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 631-959435.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Asteburuak barne. Tel. 602-842219.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 612-535873.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 688-735551.

- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta eraikuntzan edo mendian lan egiteko. Tel. 662-415709.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 641-821279.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo laguntza behar dutenak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. 631-611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Tel. 635-189294.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 631-398396.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 655-778451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-246551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-874525.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-206409.
- Neska eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko edo nagusiei konpainia egiteko. Tel. 688-815440.
- Neska eskaintzen da asteburuan garbiketarako egiteko. Tel. 602-028275.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 602-341070.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-524396.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldatzeko. Tel. 632-329301. Marta.

### 4.2. Langile bila

- Neska behar da astean behin emakume bati laguntzeko. Autoa izatea baloratuko da. Tel. 943-202030.
- Emakumea behar da ume txikia zaintzeko irailetik aurrera. Baita gauez ere. Externa. Tel. 669-780187.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak


- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestakuntzako ikasleei. Antzeko ezaugarriko 4 lagunekin taldeak gehienez. Gaiditu dutenen indize handia. Urte askotako esperientzia. Tel. 615-705945.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfiletarako prestakuntza: IVAP, HABE...

- Umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.4. Bestelakoak

- Berbalagun talde bat osatu nahi dugu ingelesez berba egiteko. Horretarako, ama-hizkuntza ingeleza duen norbait behar dugu; trukean euskera/erdera beharko balu, gu prest laguntzeko. Tel. 628-780910.


**943 20 09 18**

publizitatea@etakitto.eus

ego-gain, 6

# KONTENT

943 11 86 91



## 5. urteurrena

**Kafetegia / Restaurant  
Pintxoak / Pub / Taska**

**M M Meka**  
Lanbide Eskola

**AURREMATRIKULA**  
**Ekainaren 1etik 19ra**

**ERDI  
MAILA**

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA  
MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA  
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA  
MENPEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN  
PERTSONEI ARRETA  
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA  
ERIZAINZAREN LAGUNTZA  
KARROZERIA

**GOI  
MAILA**

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK  
AUTOMOZIOA  
HAUR-HEZKUNTZA  
METAL ERAIKUNTZAK  
GIZARTERATZEA



Praktikak Atzerrian,  
Duala, Orientazioa,  
Lan Poltsa...



Tel. 943 748 019 • [www.meka-elgoibar.eus](http://www.meka-elgoibar.eus)

# Eibarko erdigune berria



Atikoak terrazekin | Gimnasioa | Balio anitzeko gela sukaldearekin | Sukalde hornituak

**ERREBAL PROIEKTUAREN ONDOAN**

**Neinor Store:** Bidearrieta, 6 - Eibar

**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**